Jakes Bortairu
EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

Euskal Herria Parisen aipagai

Pasa den maiatzaren 25ean hasi da frantses asanblada nazionalean Lurralde elkargoen erreformari buruzko eztabaida. Erreforma honekin Sarkozyk instituzioen antolaketa sinplifikatu nahi omen du, eskuduntzak berbanatu eta dirua aurreztu. Kritika ugari entzun dira proiektuaren kontra eta besteak beste, 30 urteko deserdiratze aro baten ondotik, birzentralizazio joera azkarra ikusi diote anitzek egitasmoari.

DANI BLANCO

Eztabaidaren karietara, Euskal Herria aipagai izan da diputatuen artean. Alabaina Poulou jaunak hitza hartu du Ipar Euskal Herrian erreformak hautetsi eta jendarteko sektoreen artean sortzen dituen kezkak aipatzeko: *Pays* egitura ezabatuz eta Departamenduari eskuduntza orokorra kenduz, azken 15 urteetan zutik ezarritako prozedurak, Garapen eta Hautetsien kontseiluak, lurralde kontratuak eta instituzioen arteko kooperazioa oinarririk gabe gelditu dira.

> Baterak indarrak biltzen segitzen duen bitartean, hautetsi eta Kontseiluetako kide batzuk bi beldurren artean dira: borrokan inplikatu ala deus gabe gelditu?

Duela urte bat pasa, erreforma aipatzen hasi zelarik bi Kontseilu horiek dokumentu bat helarazi zioten legea prestatzen ari zen batzordeari, hiru hipotesi marraztuz: *statu quo* atxikitzearena, egitura bati eskuduntza batzuen delegazioa eta Lurralde Elkargo propioa, Korsikan bezala. Denbora berean Batera plataformak, aukera garrantzitsua ikusiz, egiazko hordago bat bota zuen: Ipar Euskal Herriko ezagupen instituzionalari buruz eskatzen zuen herri kontsulta, berak antolatzea ahal bezainbat herritan, Euskal Herriaren ahotsa entzunarazteko. Ekimena arrakastatsua gertatu zen, hiru irakaspen argi utziz: instituzio arazoa bizirik da, herritarrek kontsultatuak izan nahi dute eta gehiengo zabal bat Lurralde elkargo baten sortzearen alde da, hain zuzen bi Kontseiluen azken hipotesia. Ondoko Biltzar Nagusian Batera plataformak proposamen berri bat zabaldu zuen: lau urteko prozesu politiko bat irekitzea, Euskal Herriko Lurralde Elkargoaren sortzeari begira.

Bitartean, lege proiektua ezagutu bezain laster, bi Kontseiluek lehen hipotesia galdutzat eman zuten eta bigarrenaren gauzatzeari lotu zitzaien. Lege proiektuak aurreikusten zituen "pôle métropolitain" delakoak moldatzeko zuzenketak landu zituzten Euskal Herriari aplikatu ahal izateko baina legearen kudeatzaileak ez zituen onartu, legearen izpirituaren kontra zihoazelako. Bigarren hipotesia kanpora! Baterak bere proposamenaren inguruan indarrak biltzen segitzen duen bitartean, hautetsi eta Kontseiluetako kide batzuk bi beldurren artean dudan dira: borrokan inplikatu ala deus gabe gelditu? ■

TXANDAN

Edu Zelaieta

HH

0-6 urte bitarteko haurrak hartzen dituen Hezkuntzako etapari deitzen zaio Haur Hezkuntza (HH) Hegoaldean. 6-12 bitarteko ikasleak Lehen Hezkuntzan (LH) aritzen dira eta 12-16 bitartekoak, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH).

Nire ustez, bistan da haurtxoek eskolan gero eta denbora gehiago ematen dutela, sistema kapitalistak aita-amok (etxetik kanpo) ekoiztera bultzatzen gaituen bitartean. Eredu honen ondorioz, ikastetxe anitzek bi urteko gelak txertatu zituzten aspaldi eta Haur Eskola franko ireki ziren hor-hemenka. Hala ere, eskaera sozial eskerga dela eta, 3 urte bitarteko haurtxo asko plazarik gabe gelditzen ari dira azken urteotan.

Apirilaren 20an argitaratu zen Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretua: elebitasun integratzailea, Euskal Herriaren termino egokitua, normaltasuna…, baina HHren berririk ez. Izan ere, zabaldu ongi betazalak irakurle, LHk eta DBHk bakarrik osatzen dute Oinarrizko Hezkuntza egun: HH ez da oinarrizkoa, HHri ez zaio hezitzaile izaerarik onartzen, HH ez dago legez babesturik.

Susmoa dut, (EAEko) sistemakide agurgarriok, HH bi maiuskula huts direla. ■